

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN 2014-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA**

---

Joan de abenduaren 22an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak aho batez onartu zuen Euskal Herriko Unibertsitatearen ekonomia-finantza jardueraren 2014ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena.

Txostenak ondorioztatu du Unibertsitateak zuzentasunez bete duela 2014an ekonomia-finantza jarduera arautzen duen lege arautegia, nahiz akatsak azaleratu diren bai **Langile gastuen** atalean bai **Administrazioko kontratazioan**; honela, bada, Langileen atalean irakasleei 718.842 euroren ordainketak egin zaizkie arautegian aurreikusi gabeko kontzeptuengatik eta irakasle-zerrendaren % 40ko muga gainditu da, Unibertsitateen Lege Organikoak aldi baterako lan kontratua duten irakasle eta ikertzaileentzat finkatutakoa; honekin batera, Administrazioko kontratazioan 2,2 milioi euroren gastuak oker izapidetu dira kontratu txiki edo publikotasunik gabeko negoziatu modura eta 4,4 milioi euroren gastuak egin dira indarreko kontratuez landa; berebat, guztira 10,9 milioi euroren zenbatekodun luzapenak egin dira okerbidez 2 kontratutan.

Urteko kontuei dagokionez, HKEEk aldeko iritzia kaleratu du, nahiz ez duen Berariazko Geldikinaren zuzentasunari buruzko ondoriorik atera (82,9 milioi euro), zeinaren atal bat Gastu Orokorretarako Geldikintzat hartu behar zatekeen; ez eta Funts Bibliografikoen saldoaren zuzentasunari buruzkorik ere, kontularitzan 23 milioi euroren kontularitzako balio garbia duena.

**Finantza egoerari** dagokionez, Epaitegiak azpimarratu du 2013koareiko bere horretan eutsi diola **emaitza arruntari**. Zorpetzeak **behera egin du berriz 2014an**, laugarren urtez jarraian. Azken ekitaldietan **transferentzia eta diru-laguntzek eragindako diru-sarreren murrizketak** EHUren inbertsio gaitasuna nabarmen urritu du. Inbertsioak etorkizunean egin ahal izatea finantzaketa eskuratzeko gaitasunaren baitakoa dela ondorioztatu du Epaitegiak, dela kapitalezko diru-laguntza bidez, dela beste zorpetze bat baliatuta.

Txostenak gaineratu du 2014ko ekitaldiari dagokion aurrekontuaren likidazioak finantza oreka eta iraunkortasun printzipioak bete dituela, Urteko Kontuetan jasoa dagoen informazioaren arabera.